



Zarateamoko Udala
Bizkaia

ZARATEAMOKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II PLANA

2022ko azaroa – 2026ko azaroa





Zaratamoko Udala
Bizkaia

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena:
 - Aurrekariak
 - Eskerrak
2. Erreferentziazko arau-esparrua
3. Metodologia:
 - Lantzeko prozesua
 - Planaren ezaugarriak
 - Helburuak lehenesteko irizpideak
 - Lan-taldea
4. Helburu eta ekintzak
 - Testuingurua: EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VII. Plana
 - Diagnostikoaren ondorioak
 - Helburu eta ekintzen deskribapena
 - Aurrekontua
5. Jarraipena eta ebaluazioa
6. Kronograma





Zaratamoko Udala
Bizkaia

Aurkezpena

Aurrekariak

Oraindik gizarte gisa emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortu arte egin behar dugun lanaz jabetuta, Zarategui bere I. Berdintasun Planarekin hasitako ahaleginari eutsi dio, ildo horretan beste urrats bat eginez. Horrela, Udalak prozesu parte-hartzaile bat abiatu du, udalerriko gizon-emakumeen arteko berdintasunerako Bigarren Plana egiteko, 4 urtetarako, 2022ko uztailetik 2026ko uztaileira arte. Plana esku-hartze integral, koordinatu eta zeharkako gisa planteatzen da, eta sexuen arteko ekitatearen aldeko borrokan parte hartzeko bide eraginkor gisa.

Plana lantzen hasi aurretik, eta lehenengo urrats gisa, **diagnostiko** bat egin da, udalerrian gizon-emakumeen berdintasunaren gaur egungo egoerari argazki bat ateratzeko, erabilgarri dauden datu objektiboen azterketan oinarrituz, zeharkako informazio iturriak interpretatuz, eta herritarren berdintasunari buruzko iritzia aztertuz. Dokumentu honetan jasota dauden orientabide estrategikoei II. Berdintasun Planari ekiteko balio dute.

Eskerrak

Aukera-berdintasunaren gaia aztertzen duten tokian tokiko planak egiteko, beharrezkoa da ordezkari politikoen, teknikarien eta udalerrian bizi diren herritarren parte hartzea, are gehiago, gure kasua bezalakoetan: udalerri txikia da, 1.600 biztanle baino gutxiago ditu, eta zaila da datu objektibo, bereizle eta gaur egungoak aurkitzea. Bizi diren errealitate sozialari buruz duten iritzia eta pertzepzioan, hainbat eta hainbat hausnarketa dituzte gauzak egiteko moduari buruz, eta berdintasun printzipioa, bere zentzu osoan, bermatzeko ezarri beharko litzatekeen antolamendu egokiari buruz.

Pertsonak dira aldaketa sozialaren motore nagusia. Mila esker zuen denbora, dedikazioa eta ideiak gurekin partekatzeagatik. Jasotakoa ekintza bihurtzen saiatuko gara, emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala lortze bidean.





Zaratamoko Udala
Bizkaia

Erreferentziazko arau-esparrua

II. Berdintasun Plan hau gauzatzeko, erreferentziazko marko nagusi gisa ondorengoak hartu ditugu:

- Tokiko bizimoduan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europar Karta.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen (13/12/21ean eguneratua).
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa, martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua.
- 4/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzkoa.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.
- Bizkaiko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Foru Plana. 2021-2024.
- Zaratamoko emakume eta gizonen berdintasunerako I Plana 2018 – 2021.
- Tokiko berdintasun planak diseinatzeko, kudeatzeko eta balioesteko gida (Emakunde – Eudel).
- Berdintasun Politika Publikoen Kalitate Estandarrak.

Metodologia

Lantzeko prozesua

Lan-prozesua modu partekatu eta adostuan gauzatu dute langileek, teknikariek, politikariek eta herritarrek. Udalerriko herritarren parte hartzea ezinbestekoa da udalerritik txikitzen, berdintasun politikan, denboran zehar, lortutako hobekuntzen iraunkortasuna bermatzeko, izan ere, zailtasunak egon daitezke denboran zehar norabidea, kontsentsua eta baliabideak, ez bakarrik ekonomikoak, mantentzeko. Horrekin lotuta, interesgarria eta beharrezkoa da sarean lan egitea, udaleko arloen artean eta baita udaletik kanpora ere, baliabideak partekatzeko, eta generoaren ikuspuntua hedatzen joateko, berdintasunaren aldeko gobernantzan. Horretarako, politikarien, teknikarien eta herritarren konpromisoa behar du.

Plana eraikuntza-prozesu bat sinbolizatzen duen dokumentu bat da. Ez da itxia, eta hemendik aurrera egingo diren ebaluazio eta zuzenketei aberasten joango da.

Partaidetza hau honako ekintzetan zehazten da:





Zaratamoko Udala Bizkaia

- **Talde Eragilearen** sortzea: udal langile, politiko eta herritarrez osatuta. Funtzioak: lan prozesuaren kontrastea, estrategien definizioa eta lortutako emaitzen balioztatzea. Prozesuaren aldi guztietan hartu du parte, I. Planaren ebaluaziotik, 2022an egindako diagnostikoan eta II. Planaren egitean.
- **Herritarrei zuzendutako bi saio**, tailer formatuan, Planaren proposamena kontrastatzeko.
- Hiritarrei zuzendutako **inkesta**, diagnostikoaren barruan.

Planaren ezuagarriak

Plana dokumentu operatibo bat da, eta ekintzak jasotzen ditu. Ekintza horiek aurretiaz egindako diagnostikoan ezarritako orientabide estrategikoen arabera zehaztu dira, aurreko Planean zehaztutako estrategia ere mantenduz. Helburuak eta lortzea espero den emaitzak lehenetsi dira, planean sartzeko, alde batetik, modu puntualean egiten ziren ekintzak, eta, bestetik, egindako ibilbide hori gaingitzeak dakarren marko orokorra.

Planak udalerriaren errealitatera egokitua eta neurrira ekarria izan behar du, bai bere barne-antolamenduan, bai eskaintzen dituen zerbitzuetan. Proposamenak Zarateamoko gizarte errealitatea kontuan hartuta egin dira. Beraz, Planaren dimentsionamenduak bateragarria izan beharko du anbizio-dosi egoki batekin.

Plana ibilbide-orri zorrotz bat da, baina baita malgua ere, errealitatearen aldakortasunera egokitu dadin, eta, hala ere, berdintasun printzipioa betetzeko bermean aurrerapausoak eman ditzan.

Helburuak lehenesteko irizpideak

Plan honetako helburuei ekiterako orduan, garatutako lan dinamika ezberdinetan helburu horiek lehenesteko irizpide nagusiak honakoak izan dira:

- Parte-hartzeko behar soziala.
- Parte-hartzeko aukerak.
- Baliabide mugatuekiko egokitasuna/sinergia.
- 2022an egindako diagnostikoan ezarritako orientabideak.

Era berean, ondorengo aldagaiak hartu dira kontuan:

- Udalerriaren gaitasuna, genero ikuspegia barneratzeko.
- Aurretiazko diagnostikoan ateratako informazioarekin duen lotura.
- Eraginkortasuna mantentzea.
- Eragina eta iraunkortasuna sustatzea.





Zaratamoko Udala
Bizkaia

Lan taldea

Kudeaketa-taldea da planaren giltzarria. Trakzio-lana egingo du, planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta beharrezko ikusten duenean neurri zuzentzaileak ezartzeko. Helburuei norabide berriak jartzeko eta ekintzak birbideratzeko gaitasuna izango du, ezarritako adierazleen azterketari esker.

Lan egitura ondorengoek osatu dute:

- **Sustapen - Egitura:** Alkatetza Arloan kokatuta, Alkatetza, Berdintasun ardura duen Zinegotzigoa eta Gizarte Zerbitzuekin. Berdintasunaren inguruan prestakuntza jaso du eta esperientzia dauka arloan. Bere ardurak:
 - Ekintzen antolatzea, dauden baliabideak kontuan izanik (ekonomikoak, pertsonak etab.)
 - Urteko lehentasunak mugatzea.
 - Ekintzak abian jartzea eta arduren banatzea.
 - Jarraipena eta ebaluazioa.
- **Talde eragilea:** berariaz sortua lan-prozesua bultzatzeko. Berdintasunaren inguruan prestakuntza jaso du eta osaera mistoa dauka:
 - Berdintasun ardura duen Zinegotzigoa
 - Gizarte langilea
 - Udal Eskola
 - Eskolako Familien Elkarte
 - Zaratamoko emakumezko eta gizonezko hiritarrak

Bere helburuak honako hauek dira:

- Berdintasun Planaren egite, ezartze eta jarraipen prozesuan laguntzea.
- Aukera berdintasuna lortzeko ekimen eta ekintzak bultzatzen laguntzea.
- Udaleko berdintasun politikak bideratzeko ideiak eta hausnarketak egiteko eremua izatea.
- Herrian emakume eta gizonen arteko benetazko berdintasuna lortzeko proposamen eta ekintzen lantzean laguntzea.

Bestaldetik, Zaratamo, **Nerbioi-Ibaizabal Mankomunitatearen** partaidea da, inguruko beste 8 herrirekin batera. Esparru horretan, oinarritzko edo eskualdeko gizarte-zerbitzuak abian jartzea aurreikusten da, hainbat arlotakoak, besteak beste, berdintasunekoak.

Honetaz gain, prozesua horrela osatu da:

- Udalerriko persona erreferenteekin egindako hainbat bilera eta elkarrizketa.
- Kanpo-aholkularitza baten laguntza teknikoa.
- Kontraste irekia, herritarrekin.





Zaratamoko Udala
Bizkaia

Helburuak eta ekintzak

Testuingurua: EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VII. Plana

Proiektuak, **EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VII. Planaren** irizpide eta lan estrategiak hartzen ditu erreferentzizat, Zarategui errealtatera egokituz. Plan honek 4 esku-hartze eremu ditu: “Gobernu Ona” (erakunde-aldaketarako eta/edo barne funtzionamendurako erronkak, administrazio publikoetan) eta herritarren esku-hartzerako 3 ardatz nagusiak (izaera sozialeko erronkak). Horietako bakoitzean, jarduera-jarraibideak ezartzen dira, programetan eta helburuetan zehaztuta

- **Gobernu ona:** Barneko Eremua. Erakundeen barnetik. Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren txertatzea legitimatzeaz, aitortzeaz eta bultzatzeaz arduratzen da. Horretarako, gizarte osorako ereduak izateaz gainera, Gobernu Onean finkatuta uzten dira gobernu-jarraibideak, aurrekontu-izendapenak, erakunde-akordioak, kudeaketa gardeneko prozedurak eta zaintza-sistemak.
- **Emakumeen ahalduntzea:** Emakumeengan ardaztua. Emakumeen eta neskatilen ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa babestea eta sustatzea. Ahalduntzea betekizun eta berme bat da munduan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eraldaketa sozialerako. Emakumeak ahaldundu gabe, ez dago berdintasunik.
- **Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea:** Ingurune sozio-ekonomikoa. Beharrezkoa da eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak inplikatzeko, eskubideak bermatzeko eta eredu sozial iraunkorrago eta berdinzaleago bat lortzen laguntzeko.
- **Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak:** Sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzioa, arreta, berronartzea eta erakundeen arteko koordinazioa. Arreta jartzen da, batetik, prebentziora, eta, bestetik, bizirik jarraitzen duten biktimei arreta integrala ematean (erabat oneratzeko diren arte).

Jarraian zehazten diren printzipioak hartu dira kontuan, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua):

- Tratu-berdintasuna eta ikuspegi intersektionalaren integrazioa
- Aukera-berdintasuna
- Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea
- Dibertsitatea eta diferentzia errespetatzea
- Genero-ikuspegiaren integrazioa
- Ekintza positiboa
- Sexuaren araberako rola eta estereotipoak ezabatzea





Zarautzko Udala
Bizkaia

- Sexu- eta/edo genero-identitatea eta sexu-orientazioa askatasunez garatzeko eskubidea eta gorputz-autonomiarako zein autodeterminaziorako eskubidea, horiek bermatzen baitute sexu- eta ugalketa-eskubideak balia daitezkeela
- Ordezkaritza orekatua
- Lankidetzak, koordinazioa eta nazioartekotzea
- Emakumeen ahalduntzea
- Gizonen inplikazioa
- Parte-hartzea
- Berrikuntza, gardentasuna eta kontu-ematea
- Hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea

Diagnostikoaren ondorioak

Jarraian, labur-labur azalduko dira berdintasun-diagnostikoan jasotako premiak, eta lau eremu handitan multzokatuko dira, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren printzipioekin eta esku-hartze ildoekin bat etorritik:

GOBERNU ONA	✓ Beharrezkoa da egindako ekintzen plangintza eta jarraipena egiteko tresnak indartzea. ✓ Horretarako, egindako jardueren erregistro bat egitea, haien garapena sistematizatuz, modu isolatuan jarduteak ez baitu errazten Planaren helburu finalistak lortzea. ✓ Beharrezkoa da esku hartzeko ardatzen irismena udalaren errealitatera eta baliabideetara egokitzea, kontuan hartuta ez dagoela berdintasunean berezitutako lanposturik. ✓ Lan-prozesuan laguntzen duten hainbat esparrutako pertsonekin partaidetza-organoak mantentzea (Talde eragilea, lehen Berdintasun Batzordea). ✓ Komunikazioa indartzea, alderdi guztietan: herritarrengana, lan-prozesuan parte hartzen duten talde edo erakundeen artean... ✓ Hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa sistematizatzea. ✓ Inplikaturako langileak prestatzea. ✓ Kontratazio publikoan eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak txertatzeari buruzko jarraipen-mekanismoak ezartzea.
-------------	--





Zaratamoko Udala
Bizkaia

AHALDUNTZEA	✓ Jarduera gehiago bultzatzea, aurreko planean landutakoaren ildotik, gai berriak barne. ✓ Inguruko erakundeekin sareko lana sustatzea. ✓ Eremu horretako lanean ikuspegi intersektzionala sartzea. ✓ Elkarrekin eta beste interes-talde batzuekiko koordinazioari eustea.
ERALDATZEA	✓ Erantzunkidetasunaren arloa lantzea, udalerrarentzat eta hartzaileentzat egokienak diren jarduerari buruz hausnartuz. ✓ Hezkidetzako lana bultzatzea. ✓ Beste erakunde batzuekiko koordinazioa mantentzea hezkuntzaren arloan (Eskola, IGE, beste ikastetxe batzuk...). ✓ Balioak berdintasunerantz aldatzera bideratutako jarduerak garatzea (hitzaldiak, eztabaida-taldeak...). ✓ Jarduerak talde jakin batzuetara bideratzea: Gazteria, gizonak, etab.
INDARKERIA	✓ Hasitako ekimenei eustea. ✓ Indarkeria matxista gaitzesteko udal konpromisoa ikusaraztea. ✓ Jaien eremuan berariaz lan egitea.






Zarautamoko Udala
Bizkaia

Helburu eta ekintzen deskribapena

Egindako diagnostikoaren ondorioetatik abiatuta, lehentasunezko helburu batzuk identifikatu dira VII. EAE Planean sartutako 4 esku-hartze eremuetako bakoitzerako, eta helburu bakoitzerako ekintzak zehaztu dira:





Zarateamoko Udala
Bizkaia

1. GOBERNU ONA

1.1 Helburua: Berdintasunerako plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzea

EKINTZAK	ARDURADUNAK	URTEAK					ADIERAZLEAK/ERREGISTROAK
		22	23	24	25	26	
1.1.1 Urteko plan operatiboak diseinatzea, 4 urterako plan estrategikotik abiatuta.	Sustapen-egitura	X	X	X	X	X	Urteko planak
1.1.2 Egindako jardueri buruzko informazioa biltzeko formulario bat prestatzea, sexuaren eta jatorriaren aldagaiak txertatuz.	Udaletxea	X					Formularioa
1.1.3 Formularioa pertsona/erakunde/elkarte antolatzaileei zabaltzea.	Udaletxea	X					Hedapen-erregistroa Erakunde / hartzaile kop.
1.1.4 Planaren jarraipen-sistema bat ezartzea, beharrezko informazioa bilduz.	Sustapen-egitura	X					Jarraipen-sistema definituta
1.1.5 Planaren urteko ebaluazioa/memoria egitea.	Sustapen-egitura		X	X	X	X	Urteko memoriak
1.1.6 Ebaluazio- eta jarraipen-tresnak definitzea (adierazleak, aginte-etaulak...)	Sustapen-egitura	X					Tresnak
1.1.7 Berdintasunerako udal-ordenantza bat egitearen erabilgarritasuna baloratzea.	Alkatetza			X			Akta

1.2 Helburua: Berdintasunaren kudeaketan eta koordinazioan inplikaturako organoak indartzea

EKINTZAK	ARDURADUNAK	URTEAK					ADIERAZLEAK/ERREGISTROAK
		22	23	24	25	26	
1.2.1 Plana indarrean dagoen bitartean, sustapen-egiturari eta talde eragileari eustea.	Sustapen-egitura	X	X	X	X	X	Bilera eta parte hartzaile kop. (sexuz eta jatorriaz bereiztuta)
1.2.2 Bi lan-egituren jardun eta koordinaziorako barne-araudia definitzea.	Sustapen-egitura Taldea eragilea	X					Arautegia
1.2.3 Mankomunitateari jakinarazi behar zaio beharrezkoa dela arlo horretan baliabide komunak koordinatzea eta indartzea.	Alkatetza		X				Mankomunitatearen akta
1.2.4 Prozesuan inplikaturako pertsonen berdintasunari buruzko prestakuntza ematea.	Sustapen-egitura		X				Prestakuntza programa eta partaideen kop. (sexuz eta jatorriaz bereiztuta)
1.2.5 Berdintasunerako organoen eta foro soziosanitarioaren arteko koordinazioa mantentzea, informazioa trukatzuz.	Gizarte zerbitzuak	X	X	X	X	X	Foroaren aktak
1.2.6 Koordinatzeko beste interes-talde batzuk identifikatzea (jai-batzordeak, elkarteak...)	Talde eragilea	X	X	X	X	X	Talde eragilearen aktak





Zaratamoko Udala
Bizkaia

1.3 Helburua: Lan-arlo eta/edo -prozeduretan genero-ikuspegia txertatzea

EKINTZAK	ARDURADUNAK	URTEAK					ADIERAZLEAK/ERREGISTROAK
		22	23	24	25	26	
1.3.1 Herritarrentzako zerbitzuei buruzko on line formulario eta izapide guztien inbentarioa egitea, eta horietan guztietan sexua eta jatorria aldagaia sartzea.	Udaletxea		X				Inbentarioa Aldagaiak barne daukaten formularioen kop.
1.3.2 Emakunderen gida zabaltzea, kontratu publikoetan, diru-laguntza publikoetan, hitzarmenetan eta gizarte-itunetan eta arlo horretako aholkularitza-zerbitzuan genero-ikuspegia txertatzeko.	Udaletxea		X				Hedapen-erregistroa
1.3.3 Kontratuetan eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak txertatzearen jarraipena egitea.	Udaletxea		X	X	X	X	Berdintasun-klausulak txertatuta daukaten kontratu eta laguntzen kop.
1.3.4 Hirigintzari buruzko ordenantzaren aplikazioaren jarraipena egitea, iraunkortasunari eta genero-ikuspegiari buruzko alderdiak barne, indarrean sartzen direnean.	Udaletxea		X	X	X	X	Jarraipen txostena
1.3.5 Gizarte Zerbitzuen memoriaren adierazle nagusiak sexuaren eta jatorriaren arabera bereiztea.	Gizarte zerbitzuak	X	X	X	X	X	Bereiztutako adierazleak





Zarateamoko Udala
Bizkaia

1.4 Helburua: Komunikazioan berdintasuna txertatzea

EKINTZAK	ARDURADUNAK	URTEAK					ADIERAZLEAK/ERREGISTROAK
		22	23	24	25	26	
1.4.1 II. Berdintasun Plana ezagutaraztea herritarrei (prentsa, webgunea, postontzietan banatzea), baita Talde eragilearen zeregina ere.	Sustapen-egitura	X					Komunikazio-erregistroa
1.4.2 Webguneko berdintasunari buruzko atala berriz diseinatzea.	Udaletxea		X				Berriz diseinatutako atalaren erregistroa
1.4.3 Berdintasunari buruzko komunikazio-bideak zabaltzea: posta elektronikoa eta postontzi lila.	Udaletxea		X				Hedapen-erregistroa
1.4.4 Web-orria eguneratuta edukitzea.	Udaletxea	X	X	X	X	X	Eguneratutako web-orria
1.4.5 Komunikazio inklusiboari buruzko gida labur bat egitea eta interes-taldeei zabaltzea.	Sustapen-egitura			X			Hedapen-erregistroa Pertsona / talde hartzaileen kop.
1.4.6 Urtero laginketa bat egitea gidaren aplikazioa aztertzeko dokumentazio nagusiari buruz.	Sustapen-egitura			X	X	X	Ondorioen txostena
1.4.7 Talde eragilearen bileretako gai-zerrendan jakinarazi behar diren eta nori jakinarazi behar zaizkion aztergaiak identifikatzea.	Talde eragilea	X	X	X	X	X	Bileretako aktak
1.4.8 Egiten diren ekintzak II. Planaren testuinguruan kokatu behar dira beti.	Pertsona edota erakunde antolatzaileak	X	X	X	X	X	Ekintzen komunikazioaren erregistroak





Zarautzko Udala
Bizkaia

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

2.1 Helburua: Emakumeen garapen indibidualean eta kolektiboan laguntzea, interseksionalitatea kontuan hartuta

EKINTZAK	ARDURADUNAK	URTEAK					ADIERAZLEAK/ERREGISTROAK
		22	23	24	25	26	
2.1.1 Emakumeen autozaintetari eta osasunari buruzko sentsibilizazio-hitzaldiak egitea, haien jatorria kontuan hartuta, haurdun dauden emakumeei arreta ematea eta erditze ostean nork bere burua zaintzea barne.	Talde eragilea			X			Ekintza eta parte hartzaile kop. (sexuz eta jatorriaz bereiztuta)
2.1.2 Udalerriko emakumeekin elkartzeko foroak sortzea, Talde eragilearen kideek gidatuta, beharrak, interesak eta abar identifikatzeko.	Talde eragilea		X		X		Ekintza eta parte hartzaile kop. (sexuz eta jatorriaz bereiztuta)
2.1.3 Inguruko erakundeekin koordinatzea (Arrigorriagako Emakumeen Topalekua, Marienea...).	Gizarte zerbitzuak	X	X	X	X	X	Gizarte zerbitzuen Txostena

2.2 Helburua: Berdintasuna bultzatzea gizarte-mugimenduetatik eta herritarrengandik

EKINTZAK	ARDURADUNAK	URTEAK					ADIERAZLEAK/ERREGISTROAK
		22	23	24	25	26	
2.2.1 Elkarrekin harremana mantentzea, berdintasun-proiektua partekatzea.	Talde eragilea	X	X	X	X	X	Talde eragilearen bileretako aktak
2.2.2 Memoria-eredu bat egitea elkarrekin helarazteko, jarduerak eta parte-hartzaileen datuak zehaztuta, sexuaren eta jatorriaren arabera bereizita, formularioaren arabera.	Sustapen-egitura	X					Memoria eredua Betetako memoriak
2.2.3 Elkarrekin parte-hartzea indartzea foro soziosanitarioan.	Alkatetza	X	X	X	X	X	Foroaren aktak





Zaratamoko Udala
Bizkaia

3. EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA

3.1 Helburua: Berdintasuna gizarte-balio gisa onartzea, sexu-rolak eta -estereotipoak gaindituz

EKINTZAK	ARDURADUNAK	URTEAK					ADIERAZLEAK/ERREGISTROAK
		22	23	24	25	26	
3.1.1 Kanpainak egiten jarraitzea data esanguratsuetan (M8a, A25a...).	Talde eragilea	X	X	X	X	X	Ekintza eta parte hartzaile kop. (sexuz eta jatorriaz bereztuta)
3.1.2 Balioak berdintasunerantz aldatzeari buruzko sentsibilizazio-hitzaldiak antolatzea.	Talde eragilea		X		X		Ekintza eta parte hartzaile kop. (sexuz eta jatorriaz bereztuta)
3.1.3 Jarduera mistoak sustatzea (kultur agenda, kirola...).	Talde eragilea	X	X	X	X	X	Ekintza eta parte hartzaile kop. (sexuz eta jatorriaz bereztuta)
3.1.4 Beste erakunde batzuek antolatutako beste jarduera eta ekitaldi batzuei buruzko informazioa ematea herritarrei, webguneko atalaren bidez.	Udaletxea	X	X	X	X	X	Berrien erregistroa Berrien kop.
3.1.5 Webguneko literatura-gomendioen atalean berdintasun-gaiei buruzko liburuak sartzea.	Udaletxea	X	X	X	X	X	Webeko berrien erregistroa Gomendioen kop.

3.2 Helburua: Hezkidetza bultzatzea

EKINTZAK	ARDURADUNAK	URTEAK					ADIERAZLEAK/ERREGISTROAK
		22	23	24	25	26	
3.2.1 Eskolarekin eta Besopean elkararekin harremana mantentzea, berdintasun-proiektua partekatzeko.	Talde eragilea	X	X	X	X	X	Talde eragilearen bileretako aktak
3.2.2 Inguruko beste ikastetxe (institutuak) eta zentru batzuekin (Arrigorriagako Gaztegunea) koordinatzea, gazteen artean jarduerak bultzatzeko.	Talde eragilea			X	X	X	Koordinazio erregistroak: aktak, e-mailak... Zentru kop.
3.2.3 Eskolaren eremuan berdintasunarekin lotutako jarduerak diseinatzea.	Talde eragilea		X		X		Ekintza eta parte hartzaile kop. (sexuz eta jatorriaz bereztuta)





Zarautzko Udala
Bizkaia

3.3 Helburua: Enpleguari buruzko udal-ekimenetan genero-ikuspegia txertatzea

EKINTZAK	ARDURADUNAK	URTEAK					ADIERAZLEAK/ERREGISTROAK
		22	23	24	25	26	
3.3.1 Udalerriko langabeen eta, bereziki, emakumeen premiei buruzko diagnostikoa egitea.	Udaletxea				X		Egindako diagnostikoa
3.3.2 Emakumeen egoera espezifikoa Eskualdeko Enplegu Planean sartzea.	Alkatetza				X		Bileretako aktak
3.3.3 Lanbiderekin eta inguruko hainbat enpresarekin proiektua mantentzea, arlo hori koordinatzeko.	Alkatetza		X				Bileretako aktak
3.3.4 Mankomunitateari jakinarazi behar zaio koordinatzeko eta baliabide komunak indartzeko beharra, arlo horretan lan egiteko.	Alkatetza		X				Mankomunitatearen aktak
3.3.5 Zarautzko enpresei ezagutaraztea 50 langile baino gehiago izanez gero, berdintasun-planak egin behar direla.	Udaletxea		X				Hedapen-erregistroa

3.4 Helburua: Zaintzan erantzunkidetasuna babestea

EKINTZAK	ARDURADUNAK	URTEAK					ADIERAZLEAK/ERREGISTROAK
		22	23	24	25	26	
3.4.1 Udalerriko gizonei zuzendutako Gizonduz programa garatzea.	Udaletxea		X				Programa-erregistroa eta parte hartzaile kop.
3.4.2 Eremu horretan garatu beharreko beste neurri mota batzuei buruzko kontsulta publikoa irekitzea (gizon-taldeak, sentsibilizazio-hitzaldiak...).	Talde eragilea			X			Kontsulta eta datuak
3.4.3 Identifikatutako neurriak garatzea.	Sustapen-egitura			X			Ekintza eta parte hartzaile kop. (sexuz eta jatorriaz bereiztuta)





Zarautzko Udala
Bizkaia

4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

4.1 Helburua: Prebentzioa eta jardura indartzea indarkeria matxistaren aurrean

EKINTZAK	ARDURADUNAK	URTEAK					ADIERAZLEAK/ERREGISTROAK
		22	23	24	25	26	
4.1.1 Genero-indarkeriako kasuen aurrean udalak duen gaitzespena jendaurrean zabaltzea (kontzentrazioak, adierazpenak...).	Udaletxea	X	X	X	X	X	Kontzentrazio eta adierazpen erregistroa
4.1.2 Haurrei eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak ezartzea.	Talde eragilea	X		X		X	Ekintza eta parte hartzaile kop. (sexuz eta jatorriaz bereiztuta)
4.1.3 Gizarte Zerbitzuei prestakuntza espezializatua ematea.	Alkatetza				X		Prestakuntza eta programaren erregistroa
4.1.4 Gizoni zuzendutako indarkeria matxistaren aurkako borrokan sentsibilizatzeko hitzaldiak garatzea.	Talde eragilea		X		X		Hitzaldi programa Parte hartzaileen kop.
4.1.5 Jaietan indarkeria matxista prebenitzeko gida ezagutaraztea jai batzordeei (Emakunde 2022).	Talde eragilea	X	X	X	X	X	Hedapen-erregistroa
4.1.6 Biktimei arreta emateko dauden baliabideen berri ematea herritarrei.	Gizarte zerbitzuak	X	X	X	X	X	Informazio-erregistroa





Zaratamoko Udala
Bizkaia

Aurrekontua

II. Berdintasun Plan honetan aurreikusitako ekintzak aurrera eramateko, Udaletxeak 6.000 eurotako aurrekontua ezarri du, indarraldiaren urte bakoitzeko. Hala ere, neurri batzuk Udalaren baliabide propioekin gauzatuko direla aurreikusten da.

Gainera, politikak ezartzeko baliabide erabilgarriak bilduko dira, diru-laguntzen bidez (Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituneko laguntzak, Emakunde...).

Jarraipena eta ebaluazioa

Prozesu horrek aukera ematen du planen ezarpen-maila ezagutzeko eta dauden arrakastei eta/edo zailtasunei buruz eta gainditzeko mekanismoei buruz hausnartzeko, beharrezkoa izanez gero ekintza zuzentzaileak ebaluatzeko eta erabakitzeko aukerak sortuz, betetze-mailaren arabera.

Hori errazteko, urtean zehar garatuko diren helburuak eta ekintzak zehaztuko dituzten urteko plan operatiboak egingo dira, 4 urterako plan estrategikotik abiatuta.

Sustapen-egitura izango da prozesu horren arduraduna, baina Planaren indarraldiaren hasieran talde eragilearekin jarduteko eta koordinatzeko mekanismoak ezarriko dira, eta planaren jarraipen-sistema diseinatuko da, ebaluazio- eta jarraipen-tresna egokiak definituz (aginte-taulak, adierazleak), bai eta horien aldizkakotasuna ere.





Zaratamoko Udala
Bizkaia

Kronograma

EKINTZAK		2022	2023	2024	2025	2026	OHARRAK
1. GOBERNU ONA							
1.1 Helburua: Berdintasunerako plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzea							
1.1.1	Urteko plan operatiboak diseinatzea, 4 urterako plan estrategikotik abiatuta.						
1.1.2	Egindako jardueren buruzko informazioa biltzeko formulario bat prestatzea, sexuaren eta jatorriaren aldagaiak txertatuz.						
1.1.3	Formularioa pertsona/erakunde/elkarte antolatzaileei zabaltzea.						
1.1.4	Planaren jarraipen-sistema bat ezartzea, beharrezko informazioa bilduz.						
1.1.5	Planaren urteko ebaluazioa/memoria egitea.						
1.1.6	Ebaluazio- eta jarraipen-tresnak definitzea (adierazleak, aginte-etaulak...)						
1.1.7	Berdintasunerako udal-ordenantza bat egitearen erabilgarritasuna baloratzea.						
1.2 Helburua: Berdintasunaren kudeaketan eta koordinazioan inplikaturako organoak indartzea							
1.2.1	Plana indarrean dagoen bitartean, sustapen-egiturari eta talde eragileari eustea						
1.2.2	Bi lan-egituren jardun eta koordinazioarako barne-araudia definitzea.						
1.2.3	Mankomunitateari jakinarazi behar zaio beharrezkoa dela arlo horretan baliabide komunak koordinatzea eta indartzea.						
1.2.4	Prozesuan inplikaturako pertsonen berdintasunari buruzko prestakuntza ematea.						
1.2.5	Berdintasunerako organoen eta foro soziosanitarioaren arteko koordinazioa mantentzea, informazioa trukatzuz.						
1.2.6	Koordinatzeko beste interes-talde batzuk identifikatzea (jai-batzordeak, elkarteak...)						





Zarateamoko Udala
Bizkaia

EKINTZAK		2022	2023	2024	2025	2026	OHARRAK
1. GOBERNU ONA							
1.3 Helburua: Lan-arlo eta/edo -prozeduretan genero-ikuspegia txertatzea							
1.3.1	Herritarrentzako zerbitzuei buruzko on line formulario eta izapide guztien inbentarioa egitea, eta horietan guztietan sexua eta jatorria aldagaia sartzea.						
1.3.2	Emakunderen gida zabaltzea, kontratu publikoetan, diru-laguntza publikoetan, hitzarmenetan eta gizarte-itunetan eta arlo horretako aholkularitza-zerbitzuan genero-ikuspegia txertatzeko.						
1.3.3	Kontratuetan eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak txertatzearen jarraipena egitea.						
1.3.4	Hirigintzari buruzko ordenantzaren aplikazioaren jarraipena egitea, iraunkortasunari eta genero-ikuspegiari buruzko alderdiak barne, indarrean sartzen direnean.						
1.3.5	Gizarte Zerbitzuen memoriaren adierazle nagusiak sexuaren eta jatorriaren arabera bereiztea.						
1.4 Helburua: Komunikazioan berdintasuna txertatzea							
1.4.1	II. Berdintasun Plana ezagutaraztea herritarrei (prentsa, webgunea, postontzietan banatzea), baita Talde eragilearen zeregina ere.						
1.4.2	Webguneko berdintasunari buruzko atala berriz diseinatzea.						
1.4.3	Berdintasunari buruzko komunikazio-bideak zabaltzea: posta elektronikoa eta postontzi lila.						
1.4.4	Web-orria eguneratuta edukitzea.						
1.4.5	Komunikazio inklusiboari buruzko gida labur bat egitea eta interes-taldeei zabaltzea.						
1.4.6	Urtero laginketa bat egitea gidaren aplikazioa aztertzeko dokumentazio nagusiari buruz.						
1.4.7	Talde eragilearen bileretako gai-zerrendan jakinarazi behar diren eta nori jakinarazi behar zaizkion aztergaiak identifikatzea.						
1.4.8	Egiten diren ekintzak II. Planaren testuinguruan kokatu behar dira beti.						





Zarautzko Udala
Bizkaia

EKINTZAK		2022	2023	2024	2025	2026	OHARRAK
2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA							
2.1 Helburua: Emakumeen garapen indibidualean eta kolektiboan laguntzea, intersektionalitatea kontuan hartuta							
2.1.1	Emakumeen autozaintari eta osasunari buruzko sensibilizazio-hitzaldiak egitea, haien jatorria kontuan hartuta, haurdun dauden emakumei arreta ematea eta erditze ostean nork bere burua zaintzea barne.						
2.1.2	Udalerriko emakumeekin elkartzeko foroak sortzea, Talde eragilearen kideek gidatuta, beharrak, interesak eta abar identifikatzeko.						
2.1.3	Inguruko erakundeekin koordinatzea (Arrigorriagako Emakumeen Topalekua, Marienea...).						
2.2 Helburua: Berdintasuna bultzatzea gizarte-mugimenduetatik eta herritarrengandik							
2.2.1	Elkarteein harremana mantentzea, berdintasun-proiektua partekatzea.						
2.2.2	Memoria-eredu bat egitea elkarteei helarazteko, jarduerak eta parte-hartzaileen datuak zehaztuta, sexuaren eta jatorriaren arabera bereizita, formularioaren arabera.						
2.2.3	Elkarteen parte-hartzea indartzea foro soziosanitarioan.						
3. EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA							
3.1 Helburua: Berdintasuna gizarte-balio gisa onartzea, sexu-rolak eta -estereotipoak gaindituz							
3.1.1	Kanpainak egiten jarraitzea data esanguratsuetan (M8a, A25a...).						
3.1.2	Balioak berdintasunerantz aldatzeko buruzko sensibilizazio-hitzaldiak antolatzea.						
3.1.3	Jarduera mistoak sustatzea (kultur agenda, kirola...).						
3.1.4	Beste erakunde batzuek antolatutako beste jarduera eta ekitaldi batzuei buruzko informazioa ematea herritarrei, webguneko atalaren bidez.						
3.1.5	Webguneko literatura-gomendioen atalean berdintasun-gaiei buruzko liburuak sartzea.						





Zaratamoko Udala
Bizkaia

EKINTZAK		2022	2023	2024	2025	2026	OHARRAK
3. EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA							
3.2 Helburua: Hezikidetzaren bultzatzea							
3.2.1	Eskolarekin eta Besopean elkartarekin harremana mantentzea, berdintasun-proiektua partekatzea.						
3.2.2	Inguruko beste ikastetxe batzuekin (institutuak) eta beste ikastetxe batzuekin (Arrigorriagako Gaztegunea) koordinatzea, gazteen artean jarduerak bultzatzea.						
3.2.3	Eskolaren eremuan berdintasunarekin lotutako jarduerak diseinatzea.						
3.3 Helburua: Enpleguari buruzko udal-ekimenetan genero-ikuspegia txertatzea							
3.3.1	Udalerriko langabeen eta, bereziki, emakumeen premiei buruzko diagnostikoa egitea.						
3.3.2	Emakumeen egoera espezifikoaren Eskualdeko Enplegu Planaren sartzea.						
3.3.3	Lanbiderekin eta inguruko hainbat enpresarekin proiektua mantentzea, arlo hori koordinatzea.						
3.3.4	Mankomunitateari jakinarazi behar zaio koordinatzea eta baliabide komunak indartzeko beharra, arlo horretan lan egiteko.						
3.3.5	Zaratamoko enpresei ezagutaraztea 50 langile baino gehiago izanez gero, berdintasun-planak egin behar direla.						
3.4 Helburua: Zaintzan erantzunkidetasuna babestea							
3.4.1	Udalerriko gizonen zuzendutako Gizonduz programa garatzea.						
3.4.2	Eremu horretan garatu beharreko beste neurri mota batzuei buruzko kontsulta publikoa irekitzea (gizon-taldeak, sentsibilizazio-hitzaldiak...).						
3.4.3	Identifikatutako neurriak garatzea.						





Zaratamoko Udala
Bizkaia

EKINTZAK		2022	2023	2024	2025	2026	OHARRAK
4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK							
4.1 Helburua: Prebentzioa eta jarduera indartzea indarkeria matxistaren aurrean							
4.1.1	Genero-indarkeriako kasuen aurrean udalak duen gaitzespena jendaurrean zabaltzea (kontzentrazioak, adierazpenak...).						
4.1.2	Haurrei eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak ezartzea.						
4.1.3	Gizarte Zerbitzuei prestakuntza espezializatua ematea.						
4.1.4	Gizonei zuzendutako indarkeria matxistaren aurkako borrokan sentsibilizatzeko hitzaldiak garatzea.						
4.1.5	Jaietan indarkeria matxista prebenitzeko gida ezagutaraztea jai batzordeei (Emakunde 2022).						
4.1.6	Biktimei arreta emateko dauden baliabideen berri ematea herritarrei.						

